

ALTZAGA (DESERTU, ERANDIOBEKOA)

Auzoaren egungo izen ofiziala **Altzaga** da. Altzaga izena auzoko etxalde eta etxalde-multzo batetik dator, hain zuzen ere oraindik bertan diren **Altzagagoikoetxea** (Goikoetxe), **Altzagabeaskoetxea** (Beaskoetxe, Bizkotxe), **Altzagurrekoetxea** (Aurrekoetxe, Antonena), **Altzaetaetxebarria** (Etxebarri) eta **Altzaga (Palazio)**. Dokumentatu dugunez, 1697. urtean jadanik Altzaga forma erabili zen auzoa izendatzeko. Izenak etimología argia du: hultz zuhaitz izena (*Alnus glutinosa*) eta -aga atzikiaz eratorritako izena da. Amaierako -aga formak ugaritasuna adierazten du, asko alegia, eta maiz zuhaitz eta landara izenekin erabiltzen da.

Askok *Desertu* izenaz ezagutzen badute ere, izen hau, Erandion beste izen asko bezala, nahiko berria da, XIX. mende bukaerakoa hain zuzen ere. Sestaoko San Nikolas kaia sortu zenean, *Desertu* izena hartu zuen, berrian zeuden karmeliten eraikinagatik. Karmeliten artean ohikoa zen bezala eraikin honi "desierto" esaten zioten. "Desierto de San Nikolas", ondorioz, kaiari, eta gerora ibaia igaro eta Erandioko auzo hau izendatzeko ere erabiltzen hasi zen. Lehenengoz 1892an dokumentatzen dugu, hala ere bi

Hoy en día, la denominación oficial del barrio es **Altzaga**. El nombre Altzaga proviene del caserío y conjunto de caseríos que aún permanecen en pie: **Altzagagoikoetxea (Goikoetxe)**, **Altzagabeaskoetxea (Beaskoetxe, Bizkotxe)**, **Altzagurrekoetxea (Aurrekoetxe, Antonena)**, **Altzaetaetxebarria (Etxebarri)** y **Palazio (Altzaga)**. En cualquier caso, el nombre Altzaga ya se utilizaba en el año 1697 para denominar el barrio.

La etimología del nombre es clara: es una denominación derivada del nombre en euskera del árbol aliso (hultz, *Alnus glutinosa*) y el sufijo -aga. El sufijo -aga indica abundancia o cantidad considerable y se usa frecuentemente asociado a nombres de árboles o plantas.

Aunque mucha gente conoce el barrio por el nombre de *Desierto* esa denominación es bastante reciente. En concreto, el nombre *Desierto* aparece a finales del siglo XIX. Adoptó esta denominación cuando se construyó el muelle de San Nicolás de Sestao, por el edificio de la congregación carmelita ubicada en aquella zona. Era usual en esta congregación llamar "desierto" a dicho edificio. Como consecuencia de ello, se extendió



ALTZAGA (PALAZIOA)



HALTZ-ENBORRAK / TRONCOS DE ALISO

el nombre "Desierto de San Nicolás" para denominar la zona del muelle, y posteriormente comenzó a utilizarse para designar este barrio de Erandio al otro lado de la ría. Se encuentra documentado por primera vez en el año 1892, pero en el testimonio se recogen los dos nombres. Puede pensarse, por tanto, que los nombres Desierto y Altzaga se utilizaban para denominar sitios diferentes.

Actualmente se viene empleando el nombre **Erandiobekoa** para denominar el barrio, en contraposición a **Erandiogoikoa**.

El barrio Altzaga fue mayormente una gran vega, de la que provienen nombres como **Altzagako ibarra** (Vega de Altzaga) o **Ibarrondo**. Por otra parte, hay que decir que la población se asentaba alrededor del caserío Altzaga (Palacio). El barrio se ha ensanchado a finales del siglo XIX y a lo largo del XX.

Existen, además, algunos topónimos antiguos que han desaparecido debido a la transformación urbanística que ha experimentado el barrio. Así, pocos habitantes recuerdan que la campa trasera a la iglesia de San Agustín se llamaba **Altoaga**.

La mayoría de la toponimia no-vascófona del barrio de Altzaga tiene relación con el proceso de industrialización y el desarrollo económico: por ejemplo, **Campa de los Bueyes**. Así, cuando los buques atracaban en el puerto de Erandio, se dejaban los bueyes que utilizaban para las labores de carga pastando en la campa contigua, y de ahí deriva el nombre; **Campa del Machaqueo**, campa en la cual se desmenuzaban o "machacaban" los bloques de piedra, o **Campa de la Goma** en Lutxana.

izenak jasotzen dira, eta Desertu eta Altzaga leku edo gune ezberdinak izendatzeko erabiltzen zirela pentsa liteke.

Azkenaldian, gainera, **Erandiobekoa** izena ere eman zaio auzo honi, **Erandiogoikoa** auzoaren antonimo gisa.

Altzaga auzoa nagusiki ibar handi bat izan zen, hortik **Altzagako ibarra** eta **Ibarrondo** bezalako toponimoen jatorria, eta bizigunea egungo Altzaga baserri-gunean baino ez zegoen. XIX. mende amaieran eta XX. mendean handitu da auzoa.

Badira baita, toponimo zaharrak auzoak jasan duen hiri-aldaketagatik zoritzarrez desagertu direnak. Horrela, gutxik gogoratzen dute San Agustin elizaren atzeko zelaiai **Altoaga** esaten zitzaiola.


Altzaga auzoko erdal toponimia gehienak industrializazioarekin eta garapen ekonomikoarekin dauka lotura: **Campa de los Bueyes** esaterako, itsasontziak Erandioko portuan porturatzen zirenean, bertan zeramatzen kargarako idiak ondoko zelaian uzten zituzten bazkatzen, eta hortik izena; **Campa del Machaqueo**, zeinetan harri handiak txikitzen edo "matxakatzen" ziren, edota Lutxanako **Campa de la Goma** bezalako toponimoak.

Lehen aipatutakoez gain hortxe ditugu: **Campa Chin**, Tartanga inguruko zelai bati esaten zaio; **Bolera**, Tartanga auzoan hau ere; **Cuesta de los ladrones**, Altzagatik Arriagara doan aldats luze eta zailari esaten zaio (Beaskoetxe-Arriaga bideari hain zuzen ere); **Hotel Orejas**, gaur egungo udaletxe atzean astoak lotzeko zegoen guneari esaten zitzzion, lekuaren erabilera oso loturik dago izenarekin, astoen belarri handiei egiten baitio erreferentzia. Esanak esan, Altzagako toponimorik gehienak euskaldunak dira.


Además de los anteriores, mencionaremos los siguientes: se denomina **Campa Chin** a una campa situada alrededor de Tartanga; **Bolera** se encuentra asimismo en Tartanga; se llama **Cuesta de los ladrones** a la pendiente prolongada y fatigosa que sube desde Altzaga hasta Arriaga (en concreto, al camino Beaskoetxe-Arriaga); se denominaba **Hotel Orejas** al espacio situado en la trasera del actual ayuntamiento, utilizado en otro tiempo para amarrar los burros y que hace clara referencia a las orejas de los asnos.

En cualquier caso, la mayoría de los topónimos del barrio de Altzaga son de origen euskaldun.

HALTZ-OSTOAK / HOJAS DE ALISO



Beaskoetxe (*Bizkotxe, Bekoetxe*)



BEASKOETXE-ARRIAGA BIDEA

"Bizkotxe" ahozatzen duguna da Altzaga auzoko toponimorik ezagunetakoia. **Altzagabeaskoetxea** du jatorrizko izen osoa eta **Beaskoetxe** edo **Bekoetxe** ere esan izan zaio. Etxe izen honetatik eratorri dira beste hainbat leku izen, bidearen izena estate baterako, **Beaskoetxebidea** (**Bekoetxeko bidea**), bai eta iturriarena **Beaskoetxeko iturria**.

El topónimo más conocido del barrio de Altzaga es **Beaskoetxe** (*Bizkotxe*), o más exactamente **Altzagabeaskoetxea**, puesto que ese es el nombre original completo. También se le llama **Bekoetxe**, siendo ésta una alternancia muy común en euskera. De ese oicónimo o nombre de casa se han derivado posteriormente otros topónimos, como por ejemplo, el que da nombre al camino **Beaskoetxebidea**, o la **fuente de Beaskoetxe**.

Tartanga

Jatorrian, etxalde baten izena da Tartanga eta gerora, auzoa bera izendatzeko erabili da; ez da, beraz, auzo izen zaharra. Etimo ilunekoa da, baliteke ezizen batetik eratorria izatea.

En sus orígenes, Tartanga fue el nombre de un caserío, y posteriormente se utilizó para nombrar el barrio; no es, por lo tanto, la denominación antigua del barrio. Se trata de un étimo de procedencia incierta, posiblemente derivado de un apodo o sobrenombre.



Altzagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Altzaga a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK	XVIII. MENDEKO ETXEAK	XIX. MENDEKO ETXEAK	XX. MENDEKO ETXEAK
CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES	CASAS DEL SIGLO XVIII	CASAS DEL SIGLO XIX	CASAS DEL SIGLO XX
Altzaga (Palazio)	Pagoeta	Artetxueta *	Aldapabarren
Altzagaetxebarria	Punta *	Atxondo *	Casas Baratas
Altzagurrekoetxea (Antonena)	Tartanga *	Maltertzio (Puntaetxebarria) *	Las Delicias
Beaskoetxe (<i>Bizkotxe</i>) *		Pasteleria *	
Goikoetxe (Altzagagoikoetxea)			



ALTZAGA ETXE MULTZOA / GRUPO DE CASAS ALTZAGA